

“KORRIKA” GOGOETA BIDE

Gure Herrian aldika egiten diren kultur egintzen artean Korrika deritzanak beti oihartzun handia izan badu ere, euskararen aurka hainbeste egintza egiten ari diren urte honetan aparteko garrantzia izan du. Hortik, nik egintza honen inguruan gogoeta egitera egin nahi dudan deia.

Euskararen alde honelako egintza zabalak (ikastolen aldeko jaialdiak,...) antolatu eta burutzen direnean, sarritan entzun izaten dugu eguneroko lanak duela garrantzia, halakoetara euskara mundutik kanpo dabiltzanak hurbiltzen direla barruko harrenaren minak sendatu nahirik edo, ezer gutxirako balio izaten dutela, eta beste honelakorik ugari.

Egia esan, arrisku hori hor dago. Giza egintza masibo gehienetan gertatzen den zerbait da. Baina arriskua dagoela eta ezin ditugu besterik gabe baztertu. Gogoratu bestela iazko “Nafarroa Oinez” deritzanean gertatua. Oso euskaltzale zen batek nik dakidan bati “horrelako egintzak ez direla gaur egun beharrezkoak, egina duela euskarak lekua herri eskoletan nahiz administrazioan, gaur egun negarti batzuen parean eskean ibiltze hori ez dela duina,...” eta honelako beste hainbat gauza” esan omen zizkion. Urtebete baino lehenago barka eske hurreratu zitzaion Nafarroako gobernuak euskararen aurka hartu berri dituen erabakiak ikusita.



Aurtengo korrika, trumoi eta tximistez beteriko ekaitzaren ostean ateri gozoa bezala, hodei ilunen ostean eguzki distiratsua legez etorri zaigu. Egin-eginean ere, AEK-k azkenaldian jasandako erasoaldi bortitzen ondoren, indartsu eta itxaropentsu.

Oraingoa ere, euskaldunon sinbolo dugun arrano beltzaren hegada ikusgarri jarraiki, muga eta oztopo guztiak gaindituz eta begiztatuz ibili zaigu Euskal Herri osoan zehar, beste behin, gure Herriaren batasuna agerian agertu eta guztion bihotzetan euskararen aldeko arnasa berri bat sortu nahirik. Aspaldidanik gure herri osoaren ekin-tza bilakatu zaigun KORRIKAK Euskal Herriko bizilagun guztien bihotzetan habia egin nahi izan

du *"mundu bat euskarara bildu"* beharra lurraldez lurralde, errepiderik errepide, kalerik kale aldarrikatuz. Euskaldunok euskarak batzen gaituela, euskara oinarritzat hartuz eraiki behar dugula etorkizuna gogora ekarri digu. Hizkuntza gutxituen urtea dugun honetan Europako hizkuntzen artean anaia nagusia dugun euskararen ahots sendo, indartsu eta itxaropentsua

izan nahi izan du, Euskal Herri euskalduna nahi dugun guztion oihartzun ozena, isilarazi ezingo den deiadar bortitza bilakutzen delarik.

Aurtengo honetan euskararen alde dauden erakunde, elkarte, talde eta pertsona guztiek hartu dute parte. Ez du inork aurkako ahotsik jaso. Euskararen alde lanean dihardugun guztiok agertu diogu onirizpena, eta egin ongi etorri beroa. Goiko eta beheko, hemengo eta hango, eskolatu eta ez-eskolatu guztiok egin diogu, ahal izan dugun adinean, lekua. Korrika, kultur egintza garrantzitsua izateaz gainera, euskaldunok elkartzeko bide ere bilakatu zaigu.

Aurtengo korrika, Anboto, Aizkorri, Aralar, Santimamiñe,... eta beste hainbat eta hainbat bazter zoragarritako haitzulo eta ezkutalekuetan bizi izan ziren gure arbasoen hizkuntzari mende berriko ateak irekitzera etorri zaigu. Hainbat hizkuntza betiko galduko diren mendearen hasieran euskarari tinko eusteko dei egitera.

Beti bezala, lasterka bizi-bizian etorri zaigu etorri ere KORRIKA, Euskal Herriko bazter guztiak dantzan jarritz, ekitaldiz ekitaldi, herriz herri, bazterrez bazter, biderik bide kultura eta hizkuntza gure etorkizunaren zutabe gotorrenak direla gogora ekarriz.

Gure gizarte honetako itsas handietako uhin enbatatsuen artean bizirik diharduen eta bizirik iraun nahi duen herri zaharren bihotzeko taupada odol-emaile ere gertatu zaigu. Inguruko hizkuntzek ito beharrean duten euskararen bizi iraupenerako erronkaren aldarrikapen ozena ere bai. Euskararen etorkizuna euskaldunon esku dugula gogoratu nahi izan digu

Korrika abiabidean ibili zen egunetan zehar, baliabide informatikoak erabiliz honako mezu hauek jaso nituen egunero nire ordenagailuko pantailan: "*Yanomani bat **oihanik gabe?***", "*Himba bat **elurretan?***", "*inuit bat **basamortuan?***", "*Nomada bat uharte **bakarti batean?***" "*Hindu bat **bebi** eroen artean?*", "*Tibeteko monjeak **armadan***" edota "...euskaldun

bat euskararik gabe?". Itaun zorrotza, dudarik gabe! Hainbatentzat hausnarketa bide sakona, batez ere euskara hainbeste eraso jasotzen ari den une honetan.

Korrikak "**Mundu bat euskarara bildu**" aldarrikatzean, besteak beste honako hau gogoratzen digu: *"Globalizazioaren bidez, uniformizazioa saldu nahi digute: kolore bakarreko mundua, kultura eta bizkuntza bakarrekoa. Korrika 12ren ustez, globalizazioak aukera eman behar du kultura eta bizkuntza guztiak, bakartuta egon beharrean elkarri eraginez bizitzeko, norgehiagoka barik, elkarren ondoan, elkarren parean izateko"*.


Korrikak, bestalde, aurtengo honetan, urteroko ohiturari jarraituz, bertsolariak omendu nahi izan ditu. Egin-eginean ere, gure aurretikoek helarazi diguten euskararen eta Euskal Herriaren iraupenaren lekuko izan direlako. Lehena eta etorkizuna lotzen dituen lekukoaren inguruan herri osoa, edozein delarik jatorria edo pentsamoldea, euskararen alde abiabidean jarri ohi duen giza talderik maitatuenetarikoa osotzen dutelako.

Aurtengo hamabigarren KORRIKAK (Gasteizen, gaztelania nagusi dugun herrian hasi eta frantsesaren menpe dagoenean, Baionan amaitu delarik), gogoak gogo, eta ahaleginak ahalegin, oraindik jaun eta jabe ditugula gure inguruko erdarak, eta euskara ito nahian dihardutela gogora ekarri digu, beste behin. Ezin dugula, bada, unetxo batean ere euskararen aldeko lana albora utzi. Jo eta ke, etengabe jarraitu behar dugula.

Beste behin aukera ederra eskaini digu, bada, KORRIKAK, oraindik oztopo artean bizirik iraun ezinik dugun euskararen egoeraz jabetu, eta indarberritzeko eta plazaratzeko konpromiso sendoa hartzeko. Lortu ere, ezer gutxi lortuko genuke egun bakar batzuetan euskararen alde egin, eta gero eguneroko bizitzan besoak uztartuta gaztelaniaren menpe, bide bazterretik euskararen alde lanean dabiltzanei, atseginez eta begirunez izan arren, begira alferkerian egonez.

Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu.

Egungo egitasmoa, alegia, Nafarroa eta Iparraldeko ikasguak sustatzea da, eta bereziki, Baionan euskaltegi eta herrialdeko egitura kokatzeko egoitza zabaltzea.



Iparraldeko euskaltegiei laguntzeko izango da. Euskarak oraindik oztopo handiak dituela aurrera egiteko ematen digu horrek aditzera. Argi nabari da eskualde horietako euskaldunek gure elkartasuna behar dutela, bertako agintariek ez baitute euskara indartzeko inolako interesik. Ez omen daude euskararen aurka, baina, oztopoak jarri eta inolako laguntzari eman ez. Kontu polita, ezta?

Jarrai dezagun, bada, euskararen aldeko KORRIKA etengabea egiten, udaberri loretsuetan, udaldi lehorretan, udazken koloretsuetan eta negu gorrietan. Euskarak arnasesturik gabe, jo eta ke, korrika, lasterka, arineketan, abiada bizian ikusi nahi gaitu,

Orain dela gutxi “**Bai euskarari**” aldarrikatu genuen, Euskal Herriko Lurralde ezberdinetako bost estadioetatik. Euskararen aldeko konpromisoa hartu ere bai. Orain beste behin “**Bai euskarari**” egin dugu deiadar ozenki, errepide eta kaleetan zehar, KORRIKAK aldarrikatzen duena, azken batean, horixe baita.

Aurten bildutako dirua, Nafarroako eta

Korrikak gizarte osoaren parte-hartzea ahalbidetzen du. Herriko elkarte, pertsonaia ospetsu, enpresa, kirol talde, instituzio, komunikabide, herritar guztiak dute lekua euskararen aldeko jai erraldoi honetan.

Eta Korrikak gizartean lortzen duen eraginak eta islak ere ekitaldiaren garrantzia adierazten dute argi eta garbi.

mende berriko gizarte aldatu honetan euskaldun izaten jarrai dezagun.

Horretarako erdaldunak ere euskara onartzera, euskararen alde egitera, euskara ikastera bultzatu behar ditugu, **"mundu bat euskarara bildu"** mezua egia bihurtuz. Hain zuzen ere, ezinbestekoa dugu euskaldun guztiok euskara gure hizkuntza jagoteko nahiz indarberritzeko elkaturik jardutea. Horretara egin digu dei, beste behin korrikak. Eskerrik asko, **korrika**, nor garen eta norantz joan behar dugun gogoratzeagatik!

Patxi Uribarren Leturiaga



Bertsozaleon elkarte da
elkarlanaren eredu
euskaltasuna barru-barrutik
ederto erakusten du
bertsotan erraz bihur liteke
infernua bera zero
omenaldirik onena hortaz
bertsoz egin dezakegu.

Bertsolariok jardun duzue
bikain **aek**-rekiko
ezertxo ere eskatu gabe
ta trukean lau txikito
aurrerantzean badakigunez
zaretena ibiliko
bertsolarion jardunarekin
zorretan gara betiko

Etxahun, Xalbador, Bilintx, Xenpelar
ta Txirrita pikaroa,
euren altxorra urterik urte
jaso dugu oparoa
zuei esker egun daukagu
gori-gori arragoa
bertsolaritza sendotzen bada
euskara aurrera doa

Kursaal handia bilakatu zen
bertsoaren ikasgela
gaur jaso hemen gure esker ona
lagunartean gaudela
argi ta garbi ikusi arren
bertsolari ez garela
saiatu gara lana egiten
bertsolariek bezela

korrika
bertsolaritzari omenaldia
aek

egilea:
aek- korrika 12

doinua:
Gure zortea





AITA SANTUAREN ESKUTITZA



Eskapularioa eman zeneko 750. urteurrenean

JOSEPH CHALMERS (O.Carm.) eta KAMILO MACCISE (O.C.D.)
Aita Agurgarriei

1. Elizarentzat graziazko gertaera zoriontsua den jubileu-urteak, hasi besterik egin ez dugun milaurteko berria fedez eta itxaropenez begiratzera darama. “Gure ibilerak mende berri honen hasieran —idatzi nuen *Novo millennio ineunte* Gutun apostolikoan— bizkorragoa izan behar du... Birjina Guztiz Santua dugu bide honetan lagun; beraren gain utzi dut hirugarren milaurteko hau” (58. z.).

Poztasun handiz jakin dut, bada, Karmengo Ordenak, bere bi adarretan, antzinakoan eta eraberrituan, seme-alaben maitasuna adierazi nahi diola bere zaindariari, 2001. urtea berari, Karmengo Lore deitua eta santutasun-bidean Ama eta gidari denari, eskainiz. Honen harian, ezin dut azpimarratu gabe utzi zorioneko bateratasun bat: Karmel osoaren Andre Mariaren urte hau ospatzea, Ordena bereko tradizio beneragarriak dioskunez, Eskapularioa eman zeneko 750. urtean gertatzen da. Horregatik abagune zoragarria da karmeldarren familia osoarentzat, ez Mariaren espiritualitatean sakontzeko soilik, hura, Birjina Jainkoaren eta gizakien Amak Kristoren eta Elizaren